

J. Martin Hiribarren (1810-1866)

Euskal idazle gartsua. Mugaz andiko eskaldunak batez ere poema sotil batean goratu zituna. Orixe'k bere euskal literaturaren kondaira laburrean aipatu ere egin ez arren, gora aundikoa degu alor ontan. Onek idatzi zigun euskal poema ez bait da nolanaikoa.

Izkuntzalariak, ala ere, argitara gabe utzi zuen Iztegiagaitik geiago aotan artzen dute. Hiribarren'ek, bada, iztegi eder bat osatu zigun; naizta, oraindik, berak utzi zuen bezela, Mekenas on baten zai, autsartean zokoratua egon. Lan auek ez al dute merezi argitara ekartzea?

Azkain'en sortua degu, Etxeberria deritzan etxean, 1810-5-8'an. Etzan edozelako odolekoa ere; amaren aldetik, bada —Juana Dutari— Baztan ibarreko Azpilkueta'n datzan Dutari leiñargitik zetorren. Ortik, au da, Dutari etxetik zetozten baita Martin Azpilkueta (1491-1586) lege-gizon ospetsua ta Maria Azpilkueta, Frantzisko Xabier deunaren ama. Beraz, auzuen aien zerbait gure poemagietrebeak.

Eliz-ikaskuntzak amaiturik, 1833-6-1'an apaiztu zan. Bertatik

Urruña'ra bialdu zuten arimazai; urrengo urtean, Bardotze'ra, ta ementxe bizi izan zan 1834'tik 1865'rarte. Azken urte onetan Baiona'ko eliz nagusiko deduzko kalonje izentatu zuten. Urte bete doi-doi egin zuen emen; goiz batean, ba, Sagararioa ixten zebillela atz-punta bat zauritu ta tetano-gaitzez il zan, 1866-11-26'an. 55 urte baiño etzitun oraindio.

Aski gai urratu zitun, itz neur-tuz batez ere; erreztasun izugarria zeukan olerkiak txirikordatzeko. Agustin Chaho'k orixegatik «olerkari maite» deitzen dio bere eskutitzetan; Goietxe'k ere, **Eskaldunak** argitaldu zuenean, «olerkaria erditu zaigu» esan zuen. Bi auekin eta Duvoisin'ekin izan zitun istillu batzuk ere, euskal ortografian orduarte erabili zuten c zala ta ez zala.

Idazlanak

J. M. Hiribarren'ek poema eder bat utzi zigun: **Escaldunak** (Baiona, 1853). Eta ukatu eziña: alegin izugarria erakusten du lan ontan, mami ta azal maisuki egiña bait dago; 238 orrialde dauzka, 5.504